



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak aurrera egin dezan, honako funtzio hauek bete beharko ditugu, garrantzitsuenak hauek izanik:

Lehenik, Instagram-eko eta Tik-tok-eko kontuak behar bezala martxan jarri behar ditugu. Sare sozialak izango dira bezeroek informazio gehiago lortu ahal izateko izango duten biderik errazena. Horregatik, nahiz eta festibala amaituta egon, urte osoan zehar egongo gara sare sozialen bidez informazio gehiago argitaratzen. Horregatik, bigarren kideak komunikazio arloaren arduraduna izango da. Izan ere, Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduan lizentziatua da.

Bigarrenik, giza baliabideen funtzionamendu zuzena egitea oso garrantzitsua da gure enpresarentzat, ondorioz, funtzio honetaz hirugarren kidea arduratuko da, baita gidariak kontratatzeaz ere. Langileek izango duten kontratua, lan edo zerbitzu jakinekoa izango da, aldi baterakoa, hau da, festibalak irauten duen egunetarako. Horretarako, kanpoko biltze-sistema prosezua burutuko da. Gero, baliabide elektronikoen bidez, esaterako Infojobs plataforma digitala erabiliz, gure lan proposamena aurkitu ahal izango du edonork. Ondoren, hautaketa-proba bat egingo da eta horietatik 500 pertsona aukeratuko ditu hirugarren kideak, ondoren, plantilaren antolakuntza, lanpostuen deskribapena eta premia berrien plangintza egingo da, eta azkenik, langileen administrazioa gauzatuko da. Horrez gain, hirugarren kidea lizentziatua da Lan Harreman eta Giza Baliabideen Graduan.

Azkenik, gure enpresan ezinbesteko da finantza-arlo zuzena izatea eta ondo funtziona dezan diruaren kudeaketa ona egitea. Horregatik, lehenengo kidea finantza-arloaz arduratuko da, bere lana alokatutako ibilgailuen finantzazioa izango da, kontabilitateko eta finantzaketako granduan lizentziatua baita.